

CIG, ELA, LAB eta CSC sindikatuek bilera sorta egin dute gaur Espainiako Kongresuan alderdi politikoekin

Lau sindikatuak ERC, JxCAT, EAJ, EH Bildu, BNG eta CUPEkin bildu dira eta Estatuan benetako agenda sozial eta demokratizatzailea bultzatzeko aldarrikapena helarazi diete.

Beren herrialdeetan negoziazio kolektiborako eskubidea berreskuratzeko premia adierazi diete

Aldarrikapen berberak helaraziko dizkiote PSOERI gaur arratsaldeko bileran

Espainiako Kongresuko gaurko bilerak estaturik gabeko hiru nazioetako lau sindikatuek joan den otsailaren 5ean Bilbon egindako adierazpenarekin hasi zuten dinamika bateratuaren barruan kokatzen dira. Bileretan parte hartu dute CIG, ELA, LAB, eta CSCko ordezkari nagusiek –Paulo Carril, Mitxel Lakuntza, Garbiñe Aranburu eta Carlos Sastre, hurrenez hurren–, ERC, JxCAT, EAJ, EH Bildu, BNG eta CUPEkin (PSOErekin batera, arratsaldean).

Sindikatuak argi eta garbi adierazi dute gizarte-agenda bat bultzatu behar dela, pentsio-erreformak eta lan-erreformak lehengoratu behar direla. Aldi berean, agenda demokratizatzaile zabal batean aurrera egiteko beharra gogorarazi dute, berehala indargabetuz Mordaza Legea eta mugimendu sozial eta sindikala (greba) kriminalizatzen duen Zigor Kodearen 315.3 artikulua. Gure nazioen eta lan-harremanen, pentsioen eta gizarte-babesaren ereduak erabakitzeko eskubidea ere aipatu dute.

Lau sindikatuek bereziki azpimarratu dute premiazkoa dela lan-erreformak indargabetzea, beren herrialdeetan lan-baldintzak negoziatzeko eskubidea aitortzeko, lan-harremanen estatalizazioari hegoak eman dizkioten eta prekaritatea eta soldata baxuak larriagotu dituzten negoziazio kolektiboaren erreformak indargabetuz.

Era berean, gogorarazi diete alderdiei aldaketa horiek bultzatzeko Legebiltzarreko ordezkariak berriin indar korrelazioa baliatzearen beharra eta garrantzia.

CIG, ELA, LAB, CSC
(Madril, 2020ko otsailaren 27a)

